



Gipuzkoako Foru Aldundiak, BIC Gipuzkoarekin elkarlanean, “Boston Immersion Program-en” parte hartzeko proiektu bat babestuko du

BIC Gipuzkoako Biomedika arloko ekintzailtza proiekturik onenak Richi Entrepreneurs erakundearen 2019ko “Boston Immersion Program” parte hartzeko aukera izango du irailaren 30tik urriaren 4arte, lehenengo fase batean, eta azaroaren 12tik 22ra bigarren fase batean. Bekaren eskaera egiteko azken eguna 2019ko maiatzaren 10a, 13:00etan izango da.

RICHI ENTREPRENEURS-en “BOSTON IMMERSION PROGRAM-ari” BURUZKO INFORMAZIOA

Startup-entzako mundu mailan ekintzailtza ekosistema aurreratuenetako batean kokatzen den, Bostonen alegia, murgiltze eta azelerazio programa baten aurrean gaude.


Richi Entrepreneurs-eko (<https://richientrepreneurs.org/>) Boston Immersion Program”, ACTION Innovation Network-ekin batera elkarlanean antolatuta dago (<https://www.actionnewengland.org>, [la asociación de 17 aceleradoras de Massachusetts y New England](#)), eta mundu mailan Biomedika (Medtech, biotech eta digital health) eta Cleantech arloan inpaktu altua duten produktuak edota kontzeptu-probak garatzen ari diren startup onenei zuzenduta dago.

Programan zehar, parte-hartzaileek Boston-eko berrikuntza ekosistemako eragile garrantzitsuenekin (industria, inbertsoreak, ospitaleak, erakunde publiko zein pribatuak, inkubategiak, azeleratzaileak, zentro teknologikoak, ...) harremanetan jartzeko aukera izango dute. Horretaz gain, parte-hartzaileek amerikar merkatuan sektore konkretu honen funtzionamendua eta nondik norakoa ezagutu eta lehenengo kontaktuak kudeatzeko oinarrizko gaitasunak garatuko dituzte.

Bestalde, startup-ek beraien negozio estrategiak, produktuaren garapena eta finantzazioa balioztatu, eta behar izanez gero eguneratu ahal izango dute, Estatu Batuetako merkatuentzako aukera erakargarri bat izan daitezen.

“BOSTON IMMERSION PROGRAM”-aren EGITURA

Bi fasetan garatuko den programa izango da:



Aukeratua izango den startup-ak, alde batetik Estatu Batuetako osasun sektoreko ekosistemaren funtzionamendua ezagutzeko aukera izango du, eta bestetik ekosistema horretako eragileekin harremanetan jartzeko beharrezkoak diren gaitasunak garatuko ditu. Horretaz gain, startup-ak bigarren fasea prestatzeko osasun sektoreko erreferentziako aholkulari baten laguntza izango du.

Lehenengo fasea eta gero startup-a Euskadira bueltatuko da, eta hurrengo bost asteetan, Bostonera egingo duten bigarren bidaia prestatzeko, definitu dituzten ekintzetan lan egingo dute aholkulariaren laguntzaz. Bostonera itzultzean, startup-ak, ekosistemako inbertsore, sektoreko erreferentziako pertsona, bazkide potentzial eta beste hainbat eragileekin banakako elkarrizketak izango dituzte. Bigarren bidaia honen helburua da elkarlanerako aukerak aztertu eta Estatu Batuetako merkatuan sartzeko ekintza plana definitzea.

AUKERAKETA EGITEKO IRIZPIDEAK

Beka honen eskaera egingo duten startup-ak hurrengo lerroetan ageri diren irizpideen arabera ebaluatuko dira:



Ahal dela, jadanik diru funtsak bildu dituzten, legalki osatuak dauden, prototipo edota azken produktu eta enpresaren kudeaketa bere gain hartzen duen pertsona bat duten STARTUP-ak izatea.


Unibertsitate zein zentro teknologikoetatik eratorritako etorkizun haundiko zientzia edo teknologia PROIEKTUAK. Proiektu hauek spin-off baten egitura izateko prestaketetan murgilduak egon behar dira.



Beraien ikuspegi teknikoaren ziurtasun zientifiko zein teknologikoak frogatzea.



Gaur egun irtenbiderik ez duten beharrei heltzen dietenak. Industriaren interesa eta merkatuaren beharra frogatzea.



Jabetza Intelektuaren estrategia argi eta garbi definitua izatea.



Errentagarritasun finantzari potentziala izatea. Proiektuaren hazkundea eta eskalagarritasuna ziurtatzeko potentziala izatea.



Proiektuari bultzada emango dion eta merkatura eramateko gaitasunak dituzten ekintzaile taldea edukitzea, proiektuarekiko pasioa dutenak eta gizartean eragin positibo bat izango duten soluzio zein produktuak azeleratzeko gaitasuna duten ekintzaile taldea.



Ingeles maila altua eta hizkuntz horretan harremantzeko gaitasun altuak.



Sektorea:
Bioteknologia
Medtech – Medical Device
Digital health



Gipuzkoan
kokaturiko startup-
a



Aurrez, **Bostonen** beste
azelerazio programa
batean parte hartu ez
izana.

EGUTEGIA



BALDINTZAK ETA BEKAREN ESKAERA

Bekak, Bostoneko azelerazio programan parte hartzeak duen kostuaren %100 ordainduko du. Horretaz gain, startup-ak 3,500\$eko diru poltsa izango du bidaia eta ostua ordaintzeko. Azelerazio programa honetan parte hartzeko interesa duten startup-ek “Eskaera egiteko Inprimakia” jartzen duen kuadrotxoan klikatu eta bertan agertzen den inprimakia bete beharko dute, eta 28. galderan “Gipuzkoako Foru Aldundia” aukeratu. Eskara egiteko epea **2019ko maiatzaren 10an, 13:00etan (bertako ordua) izango da**, hurrengo estekan

Link al formulario: <https://www.f6s.com/richientrepreneurs2019/apply>



INFORMAZIO GEHIAGO ETA KONTAKTUA

Ainhoa Unamuno – 943 000 999 – ainhoau@bicgipuzkoa.eus